

EUS  
2023-2027  
Herri Programa

ehbildu



# Durango aurrera goaz

EGINGO DUGU.



## Aurkibidea

<b>Durangon aurrera goaz</b>	<b>5</b>
<b>DURANGOPARTE-HARTZAILEA</b>	<b>6</b>
<b>HERRITARRONDURANGO</b>	<b>7</b>
<b>BIZITZA DUINA</b>	<b>8</b>
Etxebizitza	8
Gizarte ekintza	8
Hezkuntza	9
<b>DURANGO BIZIA</b>	<b>11</b>
Herri hezitzailea	11
Kultura	11
Euskara	12
Kirola	12
Memoria	13
Tokiko ekonomia	13
Industria	13
<b>DENON DURANGO</b>	<b>14</b>
Haurren hiria	14
Gazteak	14
Adinekoak	15
Pertsona migratu eta arrazializatuak	15
Aniztasun funtzionala	16
Durango bake-herria	16
<b>ZAINTZEN DUEN DURANGO</b>	<b>17</b>
<b>DURANGO BERDEAGOA</b>	<b>18</b>
Energia plana	18
Kutsadurarik gabea	18
Naturguneak babestu	19
Mugikortasun jasangarria	19
<b>AUZOENTZAKO PROPOSAMENAK</b>	<b>20</b>



# Durangon aurrera goaz

Duela lau urte Zurekin Gobernatzeko aukera eman zeniguten. Harrezkerro, elkarlanean, Aurrera Goaz. Erreferendum bidez erabaki dugu 18 pisuko dorreen eraikuntza bertan behera uztea eta aukeraz beteriko akordioa lortzea. Durango bere ondarea berreskuratu eta biziberritzeko bidean jarri dugu, hala nola, Ezkurdiko Frontoia, Merkatu plaza, Kapitanea edo Correos. Durango eta bere auzoak biziberritu ditugu elkarrekin, espazioak berreskuratuz, kultur eskaintza zabalduz, tokiko merkataritza sustatuz, auzoetako jaiak indartuz... Askok egin dugu eta asko dugu egiteko Durango hobe batera bidean. Bide horretan sakontzeko aukera dugu, baita gizarte bezala ditugun erronka lokal zein globalei erantzuteko ere. Durangoko EH Bildutik iparra argi daukagu.

Durangoko espazioak eta ondarea herritarrontzat berreskuratu eta bizitzaz betetzen jarraituko dugu. Horrela, herri eta auzo biziak eraikiko ditugu, aktiboak, gure herriaz gozatzeko aukera emango digutenak: kultur mahaia, Correoseko kultur etxea, Merkatu Plaza edo auzoguneak horretarako tresna izango dira..

Adinekoak, gazteak, jatorri anitzetakoak... anitzak gara eta denontzako Durango dugu erronka. Bakoitzaren nahi eta beharrek tokia duten herria, baina era berean herritar ezberdinok elkar ezagutzeko espazioak dituen herri kohesionatu eta konpartitua. Indarkeriarik gabeko herria eraikitzen jarraituko dugu, indarkeria matxistari edota arrazakeriari aurre eginez.

Ondo bizitzeko herri bat nahi dugu. Gazteentzat etxebizitza eskuragarria sustatzeko alokairu sozialeko parkearen bidez, kalitatezko udal plan eta zerbitzuekin, eta zerbitzu publikoak defendatuz hitzez eta ekintzaz. Zaintzen duen herria, zaintza zerbitzu publiko duinekin, zaintzaileen baldintzak duinduz eta komunitate bezala erantzunez. Herri hezitzailea haurrentzat, atsegina adinekoentzat. Denon erronka den trantsizio ekologikoari helduko dion Durango berdeagoa nahi dugu.

Eta hau guztia elkarrekin egingo dugu, gobernantza eredu parte hartzailean sakonduz. Udalaren atea ireki, auzoetara eta elkarteengana hurbildu eta elkarrekin lan egin. Erabaki garrantzitsuetan herritarren parte hartzea ezinbestekoa delako. Ez dira ideia hutsak. Durangorako dugun proiektuaren ezaugarriak dira. Lau urte hauetan eman dugun urrats bakoitzean presente egon direnak eta aurrerantzean sustatzen jarraituko ditugunak.

Dokumentu honetan, hurrengo legegintzaldirako Durangoko EH Bilduren proiektua aurkezten dizugu. Izan ere, zurekin batera.

Durangon aurrera goaz!

# DURANGO PARTE-HARTZAILEA

## **HERRI GALDEKETA**

2021ko martxoaren 3an, herri galdeketa bidez, durangarrok 18 pisuko 5 dorreei ezetz esan genien eta, demokraziaren bidetik, gure herriarentzako etapa berri bat zabaldu genuen. Galdeketa bitartez, frogatu genuen posible dela herritarroi ahotsa ematea eta Durangoren etorkizuna guk geuk erabakitzea. Gure gobernantza eredu demokratikoa eta parte-hartzailea da, beraz, herri galdeketa ereduarekin jarraituko dugu.

## **HERRITARREK ERABAKITZEKO KONTSEILUAK ERATU**

Kontseiluak badira errealitate bat Durangon. Espazio instituzionalizatuak dira, non herritarrek eta Udalak, arlo ezberdinetan, elkarrekin egiten duten lan; aholku eta parte-hartzerako espazioak dira. Hurrengo legegintzaldian, funtzionamendu araudia moldatuko dugu erabakitze ahalmena ere izan dezaten.

## **TEKNOLOGIA BERRIEN BIDEZKO PARTE HARTZEA SUSTATU**

Herritar Txartela jarriko dugu martxan, zerbitzuen erabilera eta Udalarekiko komunikazio guztiak txartel bakarrarekin egin ahal izateko. Gainera, Durangoko Udalaren web orria lagunkoiagoa eta ulerterrazagoa egiten jarraituko dugu. Teknologia berrien bitartez, ezaugarritzen gaituen gardentasunaz gain, herritarren parte hartzea ere sustatzen jarraituko dugu.

## **AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK BALORATU ETA BIDE BERRIAK ZABALDU**

Aurrekontu partehartzaileak bultzatzen jarraituko dugu, denon baliabideak herritarren eskura jartzea delako gure helburuetako bat. Euren baliabideen kudeaketan, durangarren parte hartzea bermatzeko formulak aztertuko ditugu.

## **ELKARTEENTZAKO ESPAZIOAK ZABALDU**

Pinondo Etxearen egoera tamalgarriak, eraikina ixtera behartu gintuen. Horrek hamaika elkarte batzeko espazio barik utzi zituen. Legegintzaldi honetan Intxaurren Kultur eta Gazte Gunea zabaldu dugu elkarteek lekua eman eta leku berriak zabalduz.

Durango aberatsa da elkartegintzan eta, EH Bildutik, dinamismo hori zaintzeaz gain, sustatu ere egin nahi du. Horretarako, Durangoko lokal eta eraikin publikoak zabalduko ditugu herritarren eskura jarritz. Gainera, horien erabilera kudeatzeko sistema informatizatua garatuko dugu.

# HERRITARRON DURANGO

## **TRENBIDEKO LURREN AKORDIOA GAUZATU**

Durangoko herritarrok, 2021eko martxoaren 3ko erreferendumaren bitartez, trenbideko lurrek durangarrontzat izan behar dutela erabaki genuen. Herriaren agindu horri jarraituz, EH Bilduk, Udal Gobernutik, lurren jabetza duen ETSrekin negoziazio bat abiatu zuen. Emaitza: etorkizuneko Durango marrazten duen aurreakordioa.

## **DURANGARRON AZPIEGITURAK ERABERRITZEN JARRAITU**

Andra Mari, frontoia, Correos... Durangoko azpiegiturak eraberritu eta zabalduko ditugu. Garai Jauregia, Pinondo Etxea, San Agustin Ospitalea, Tabirako igerilekuko aldagelak... Durangarronak dira, eta, beraz, zaharberritu eta herritarren erabilerarako egokituko ditugu.

## **AUZOGUNEAK: LOKAL PUBLIKOAK AUZOTARREN ESKU**

Kapitanea, Muruetatorre, Madalena, Errotarixuena edo Juan de Iciar: Espazioak berreskuratuta ditugu auzo biziak eraikitzen jarraitzeko. Orain dela 4 urte, auzoak indartzeko apustua egin genuen eta, hurrezkerok, auzoak bizitzaz betetzen ikusi ditugu. Horren adibide dira auzoetako jaiak, txitxiburduntziak, auzoetan egindako Jolas Egunak... Hori guztia auzotarren parte hartzearen emaitza da eta EH Bildutik hori sustatzen jarraitu nahi dugu lokal publikoak herritarren eskura jarritz.

## **DURANGOKO SARE BERDEA OSATU**

Trenaren trazatua berreskuratuta, gure auzoak lotuko ditugu bide berde baten bitartez eta Durangoko birika izango den berdegune handiagoa izango dugu erdigunean. Horrela, Durangoko Sare Berdea osatuko dugu herria inguratzen duten baso eta naturguneekin lotuz.

# BIZITZA DUINA

## ETXEBIZITZA

### **240 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA ERAIKI**

Eusko Jaurlaritzarekin dugun akordioa gauzaturuta, 240 BOE etxebizitza eraikiko ditugu. 23 San Fauston, 39 Birjinosten, 38 Larrasoloetan, 50 Arripausuetan eta 90 trenbideko lurretan.

### **16 UDAL ETXEBIZITZA EGOKITU ETA ALOKAIUAN ESKAINI**

16 Udal etxebizitza, altzairuz hornituta, alokairuan eskainiko dira. Etxebizitzak SanFausto auzoan kokatuta daude. Gure asmoa bide horretatik jarraitzea da, alegia, alokatzeko etxebizitza parke publikoa handituz joatea eta pertsonen etxebizitza-premiak asetzea.

### **GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRU-LAGUNTZAK**

EH Bilduk gazteentzako diru-laguntzak ematen jarraituko du. Gazteak pairatzen ari dira gehien etxebizitzaren prezioen garestitzea; izan ere, ia ezinezkoa egiten zaie emantzipatzea.

### **ETXEBIZITZA EREDU BERRIAK**

Pinondo Etxea eta San Agustin Ospitalea eraberrituta etxebizitza dotazioanalak izango dira. Pinondo Etxean gazteentzako etxebizitzak egokituko dira, gune komunitario eta eremu pribatuekin. Eta San Agustin ospitale zaharrean belaunaldien arteko elkarbizitza proiektu bat jarriko dugu martxan.

### **ETXEBIZITZA HUTSAK ALOKAIURURA BIDERATU**

Etxebizitza hutsak alokairura bideratzeko formulak aztertuko ditugu, hala nola Eusko Jaurlaritzak duen Bizigune programaren bitartez edo jabeentzako hobari fiskalak eskainiz.

### **ESTATUKO ETXEBIZITZA LEGE BERRIA**

Adi egongo gara Etxebizitza lege berriaren ibilbideari eta horrek, etxebizitza eskubidea bermatzeko, eskaintzen dituen aukerak eta tresnak baliatuko ditugu lehenbailehen: prezioen kontrola, etxegabetzeen aurkako babesa, maizterrei babes gehiago...

## GIZARTE EKINTZA

### **DEPENDENTZIA EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA**

Mankomunitatearekin lankidetzan dependentzia egoeran dauden pertsonen arreta hobetzeko plan bat diseinatuko dugu eta baliabideak ezarriko ditugu hori martxan jartzeko. Gainera, zaintza arloan lanean dabilen eragile eta mugimenduekin batera menpekotasunak dituzten pertsonen zuzendutako zaintza publiko integralen sistema bultzatuko dugu



## **POBREZIAREN AURKAKO BORROKA**

Babes Ofizialeko Etxebizitza parkea handituta eta Udal etxebizitzak alokairuan eskainita etxebizitza eskubideak bermatzeko pausoak emango ditugu. Arreta berezia jarriko dugu pobrezia egoeran dauden pertsona eta familietan etxebizitzetara sarbidea erraztuz.

Bestalde, pobrezia aurka, modu nekaezinean, lan egiten duten herri eragileak lagunduko ditugu.

## **BERDINTASUNA**

III Berdintasun plana martxan jarri

Berdintasun kontseilua indartsu eta partehartzailea izaten jarraitzeko lan egingo dugu. Dagoeneko, III Berdintasun plana onartu dugu eta berori betetzeko ekintzak aurrera eramango ditugu.

## **ANDRAGUNEA INDARTU**

Andragunearen diagnostikoa egin berri dugu eta hor agertzen diren erronkak beteko ditugu, berdintasunaren arloko politikekin bat eginez, zerbitzuak ematen duen eskaintza zabaldu eta Andraguneko parte hartzaileetan aniztasuna bilatuko dugu.

## **INDAKERIA MATXISTAREN KONTRAKO PLAN BERRIA**

Mugimendu Feministaren eskaerei erantzunez, Indakeria matxistaren unitate berria sortzeko prozesua abian jarri dugu eta teknikari berri batekin egikarrituko dugu. Prebentzioa, artatzea eta jarraipenerako beharrak landuko ditugu.

Eskolekin, udal langileekin eta elkarteekin lanketak egingo ditugu, planaren integritasuna bermatuz. Indakeria matxistarik gabeko Durango eraikiko dugu. Durangar guztiontzako herri seguru bat nahi dugu.

## **SEXU-GENERO ANIZTASUNA DEFENDATU**

Genero identitateei eta sexu-askatasunari dagokienez, LGTBI-fobiarik gabeko herri bat eraikitzeaz harago, sexu-aukera eta identitateak modu askean bizi eta garatzeko Durango baten alde lan egiten jarraituko dugu. Elkarte, eskola eta bestelakoekin ekintza planak diseinatuko ditugu, kontzientziazioa lantzeko formazioak, hitzaldiak edota bestelakoak antolatuz.

## **KONTZIENTZIA FEMINISTA ZABALDU**

Egunero egingo dugu lan Durango parekideago baten aldeko kontzientzia zabaltzeko. Arreta jarriko dugu data esanguratsuetan, azaroaren 25ean, martxoaren 8an, apirilaren 26an, maiatzaren 17an, ekainaren 28an... Egun horietan, mugimendu eta elkarten aldarrikapenetara batuko gara eta ekintza aldarrikatzaileak bultzatuko ditugu.

## **HEZKUNTZA**

### **UDAL ESKOLA KONTSEILUA INDARTU**

Udal Eskola Kontseiluan, ikastetxeetako zuzendariak, guraso elkarteak, ikasleak eta talde politikoetako ordiezkariek hartzen dute parte. Bere helburua da Durangoko hezkuntza komunitateak dituen erronkeei modu bateratuan aurre egitea.

Hurrengo legengintzaldian, Udal Eskola Kontseiluak egindako Diagnostiko partekatua abiapuntua hartuta Plan Estrategikoa diseinatuko du.

## **FORMAZIO PROGRAMA INTEGRALAK**

Udal saila desberdinekin elkarlanean identifikatutako formazio beharrei aurre egiteko programa integralak garatzen jarraitu eta berriak martxan jarriko ditugu: Hezkidetza programa integralak, euskaren erabilera bultzatzeko programak, Teknologia berrien erabilera egokiak. Aldi berean, bertako curriculumak bultzatzeko baliabideak sortzen jarraituko dugu.

## **OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO UDAL INSTITUTUA**

Gure helburua Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan kalitatezko eskaintza bermatzea da, formazioan zein enplegarritasun mailan. Horretarako, institutuko irakasle, langile eta ikasleekin lanean jarraituko dugu. Aldi berean, etapa honi dagozkion baliabideak lortzeko lanean jarraituko dugu.

# **OSASUNGINTZA**

## **DURANGOKO MAHAI SOZIOSANITARIOA SORTU**

Durangoko mahai soziosanitarioa sortuko dugu sailen eta eragile ezberdinekin elkarlanean. Helburua osasuna modu integral batean lantzea izango da. Horretarako Durangoko osasun aktiboen mapa egingo da, hau da, herritarren osasuna hobetzen dituzten faktore edo baliabideak identifikatu eta kokatuko dira. Bestalde, Orientazio zerbitzua sortuko da osasuna sustatzen duten programak garatzeko. Azkenik, Udaleko Osasun Plana diseinatuko dugu udal-politika guztietan osasun irizpideak txertatzen direla bermatzeko.

## **LEHEN ARRETA INDARTU**

Lehen mailako arreta sendotzeko apustua egiten dugu. Horretarako osasun-langile gehiago nahi ditugu arreta pertsonalagoa eta hurbilagoa eskaintzeko, azken finean kalitatezko arreta bermatzeko.

## **PEDIATRIA INDARTU**

Eguneroko kontsulta pediatrikoetan eta larrialdietan osasun langile gehiago jarriko ditugu. Ez ditugu nahi telefono-hitzordua, arreta birtualak edo geroratuak eta itxaron-zerrendak.

Argi daukagu, eraikin gehiago baino, zerbitzu on bat emateko eta zerbitzu gehiago aurrera eramateko, osasun-langile gehiago behar ditugu.

## **ANBULANTZIA MEDIKALIZATUA**

Anbulantzia medikalizatua eskatuko dugu Durangalderako. Eskualdeko biztanleria-dentsitatea kontuan izanda, ezinbesteko zerbitzua da larrialdi egoerei erantzuteko merezi dugun prestutasunaz.

## **ARRISKU TXIKIKO ERDITZEAK USANSOLORA**

Martxan dagoen ekimen herritarrari batuz, Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu Usansoloko Ospitalean pediatria eta arrisku txikiko erditzeen arreta zerbitzua ezartzea. 2024an ospitalean handitze lanak hasiko dira eta, proiektu horretan, aipatutako zerbitzuen eskaintza bultzatuko dugu.

# DURANGO BIZIA

## HERRI HEZITZAILEA

### **HEZKUNTZA FOROA: HEZKUNTZA ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANA**

Hezkuntza foroa indartuko dugu. Hezkuntza ez formaleko eragileek, besteak beste, kultur taldeak, Kirol taldeak edo aisialdirako elkarteak, duten funtzio hezitzailea balorean jarriko dugu. Eurekin elkarlanean jarraituko dugu proiektu bateratuak bultzatuz gure haur eta gazteen heziketa integrala ardatz.

### **JOLAS EGUNAK AUZOETAN**

Elkarbizitzarako eta gozamenerako eskaintzen dituzten aukerak ikusita Kultur Programetan Jolas Eguna txertatzen eta indartzen jarraituko dugu. Hasieran aurreikusitako helburuak: parte hartzea indartzea, espazio komunak eraldatzea, autonomia eta elkarlana sustatzea sakontzen jarraituko dugu ekimen berriak sustatuz eta Auzo elkarte eta Aisialdi elkarteekin elkarlana indartuz

### **AISIALDIAN ERE HEZITUZ**

Ludoteka, Gazteguneak eta Udako kanpamenduak antolatzen jarraituko dugu, beti ere, aisialdiaren ikuspegi hezitzailea indartuz.

## KULTURA

### **CORREOS: DURANGOKO KULTUR ETXEA**

Correoseko eraikina eraberritu eta Durangoko elkarte eta eragileentzako gune artistiko eta kulturala izango den Kultur Etxe bihurtuko dugu.

### **DURANGOKO KULTUR MAHAIA SORTU**

Durango kultur sorkuntzari, eskaintzari eta kultur ekosistema eta mugimenduari bultzada ematen jarraituko dugu, eta Kultur Mahaia izango da horretarako tresna: eskaintza zabala askotarikoa sustatzea, Durangoko sortzaileen arteko espazio konpartituak ahalbidetzea, euskal kulturagintza erdigunean kokatzea eta sorkuntzarako baldintzak hobetzea izango dira gako nagusiak.

### **KULTURA ERALDATZAILEA BULTZATU**

Durango eraldatzeko proiektuan, behar-beharrezkoak ditugu Durangoko kultur eragile guztiak. Errealitatea ikusteko eta sentitzeko modu berriak behar ditugu, eta, horregatik, kultura eraldatzailea bultzatuko dugu espazioak erraztuz, baliabideak eskainiz eta Durangoko kultura programazioan parte hartzea bermatuz.

### **KULTURA KALEETARA ATERA**

Kultura Durangoko kaleetara atera dugu, kaleak kulturaz jantzi ditugu. Auzoetan kultur eskaintza indartu dugu auzoetako jaiak babestuz. Horren adibide dugu, Dantzaro, Kantari, Uda Kulturaz Blai, KulturA-ro, Plazara.

## **PLATERUENA**

Plateruenaren irekiera bultzatu dugu proiektu komuniario euskaltzale baten bitartez. Kultur programazioa kudeatzeko kultur mahaia sortu dugu. Gure apustua Plateruenaren erreferentzia Euskal Herri mailan kokatzea da eta, honen bitartez, Durangoren izena eta izaera Euskal Herrian zabaltzea.

## **SORMENA BALOREAN JARRI ETA SORTZAILE DURANGARRAK HAUSPOTU**

Kolektibo sortzaileentzako espazioak eta baliabideak eskainiko ditugu sormena bultzatze aldera. Bestalde, "Durango Sariak" sari banaketaren lehenengo edizioa martxan jarri dugu eta kultura eta sortzaileak egiten duten lana eta esfortsua baloratzen, goraipatzen eta saritzen jarraituko dugu.

Sortzaile durangarrek euren lana burutzeko aukerak eta baldintza onak izan ditzaten egingo dugu lan. Kultur espazioetan euren parte-hartzea bermatuko dugu, sorkuntzarako guneak sustatuko ditugu eta euren lana plazaratzeko aukerak sortuko ditugu.

## **EUSKARA**

### **EUSKARA KONTSEILUA: BERRABIARAZI ETA BEHAR DUEN GARRANTZIA EMAN**

Euskera bultzatzen eta sustatzen diharduten eragileak hartzen dute parte Udal Euskara Kontseiluan. Egun organo aholku-emailea eta informatzailea da; behar duen garrantzia emateko, erabakiak ere hartuko dira bertan. Kontseilu hori indartu egingo dugu eta kaleetan euskararen presentzia indartuko dugu.

### **EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU**

Euskarari ezagutzatik erabilerara jauzi egiteko bultzada emango diogu. Euskararen Plan berria diseinatu dugu euskara kontseiluarekin elkarlanean. Horretarako lehenengo, aurrekoaren balorazioa egingo dugu. Proiektu zehatzak jarriko ditugu martxan, teknologia berriak eta euskera uztartzen dituenak, esaterako.

### **EUSKARAREN ORDENANTZA ONARTU ETA MARTXAN JARRI**

Euskararen udal araudia onartu berri dugu otsailean. Hurrengo legegintzaldian, martxan jarriko dugu. Udaleko jarduna euskaldundu egingo dugu, bai barrura bai kalera begira.

Euskalduntzeko politikak

Euskara ikastea denontzat eskuragarriago izateko aukerak zabalduko ditugu, horretarako kontzientziazio kanpainak bultzatuz eta laguntza ezberdinak eskainiz.

## **KIROLA**

### **INSTALAZIOAK EGOKITU ETA BERRIAK ERAIKI**

Tabirako igerilekuetan aldagela berriak eraikiko ditugu. Horrez gain, bertako berdegunea handituko dugu eta ur jolas berriak eraikiko ditugu.

Eskoletako kirol instalazioak zabaltzeaz gain, Txibitena kaleko azken partean kirol kantxa ezberdinak eta frontoi irekia eraikiko ditugu. Skate parkea ere handituko dugu eta Landako I polikiroldegiko saskibalo kantxan irisgarritasunen obrak egingo ditugu.

### **KIROL ESKAINTZA HANDITU**

Kirol eskaintza anitza izatea nahi dugu Durangon. Eskola, klub eta elkarteekin elkarlanean arituko gara ohikoak ez diren kirolak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera izateko durangar gazteek.

## **KIROLARIEN ESFORTSUA BALOREAN JARRI**

“Durango Sariak” sari banaketaren lehenengo edizioa martxan jarri dugu eta kirolariek egiten duten lana eta esfortsua baloratzen, goraiatzeko eta saritzen jarraituko dugu.

## **ZESTA PUNTA ETA PELOTA BULTZATU**

Ezkurdi frontoiaren eraberritzea bukatu dugu eta Durangon zesta punta eta pelota zaletasuna areagotu egin da. Zesta eta pelota eskolekin elkarlana bultzatuko dugu. Durango erdigunean izaten jarraituko dugu.

# **MEMORIA**

## **GOGORA EKARRI**

1936ko altxamendu faxistak eta ondorengo urteetan gertatutako errepresioak zauri senda ezinak utzi ditu Durangon: bonbardaketaren hildakoak, desagertuak, erbesteratuak... Elkarteekin batera, 1936an gertatutako gogora ekarriko dugu Durangarrek merezi duten egia plazaratzeko eta memoria historikoa landuz.

## **MEMORIA HISTORIKOA LANDU**

EHBilduk memoriarekiko bere konpromisoa erakutsi du memoria gune zein ikerketak sustatuz. Memoria lantzen jarraituko dugu talde memorialistekin elkarlana bultzatuz.

# **TOKIKO EKONOMIA**

## **DURANGOKO MERKATARIEN ALDE**

Merkataritza Plan Berezia berrikusi eta egokituko dugu, gure merkataritzaren behar berrietara egokituz. Gure tokiko merkataritza bultzatu eta babesteko dinamika guztiak bultzatzen jarraituko dugu (Durango Bonoak, laguntzak, digitalizazioa, ekintzailatza eta belaunaldi-erleboia, prestakuntza, leihatilak, etxez etxeko banaketa), baita inplikaturako eragileekin (Dendak Bai, DAZT, Bizkaiko ostalariak, eskualdeko nekazariak beste batzuk) harreman hurbil eta arina izatea ere, merkataritza-mahaiaren bitartez.

## **MERKATU PLAZA ERABERRITUA**

Merkatu Plaza zaharberrituko dugu. Erabilera anitzeko espazioa izango da: baserriarren espazioa larunbatetan, haurrentzako jolas gune estalia astelehenetik ostiralera edo anfiteatroa asteburuetan.

## **ELIKADURA BURUJABETZA**

Merkatu Plaza berria, bertako produktuak bultzatzeko gunea izango da. Elikadura burujabetzarako pausoak emango ditugu, garaian garaiko eta bertako elikagai osasuntsuen kontsumoa sustatuz. Horretarako, larunbatetako merkatuaren bueltako harremanak eta kontsumoa bultzatzeko programaz gain, merkatu plazako postu finkoetarako, inguruko nekazariarentzat erraztasunak bilatuko dira.

# **INDUSTRIA**

Eremu industrial berri bat garatuko dugu Eguzkitzagoienan, horretarako Urki-Hegoalde biala amaituko dugu industria-gunera sarrera emanez. Durango eta Durangaldeko enpresekin batzen jarraitu eta harremanak sendotuko ditugu eremu industrialak bultzatzeko eta herrian kalitatezko lanpostu berriak sortzeko.

# DENON DURANGO

## HAURREN HIRIA

### **HAURRAK ETA GAZTEEN AHOTSA AINTZAT HARTU**

Haurrei eta gazteei beharrei erantzuten duen Durango bat eraiki nahi dugu. Horretarako, eurei ahotsa ematea eta esaten dutena aintzat hartzea beharrezkoa da. Horregatik, sortu dugun Umeen kontseiluari eta Gazte Foroari jarraipena emango diegu

### **ESKOLARA OINEZ ELKARREKIN PROIEKTUA AURRERA ERAMAN**

Eskolara Oinez proiektua aurrera eramango dugu. Horren helburua da segurtasun baldintzak bermatzea Durangoko haurrak eskolara oinez joan ahal izateko modu autonomoan. Proiektua modu komunitarioan garatuko da eskoletin, auzokideekin eta familiekin elkarlanean.

### **JOLAS GUNE BERRIAK**

Auzoetako jolas guneak berritzen jarraituko dugu auzotarren eskakizunak aintzat hartuta. Gainera, merkatu plaza eraberrituan haurrentzako jolas gune estalia jarriko dugu astelehenetik ostiralera.

Landako guneko jolas libreko guneko eskaintza handituko dugu umeentzako tailerrak eta ekintza ezberdinak antolatuz.

## GAZTEAK

### **DIGITALIZAZIO ARDURATSUA SUSTATU**

Digitalizazio prozesua geldieztina da. Gure gazteak gero eta denbora gehiago ematen dute pantaila baten aurrean. Horrek eragin ditzakeen kalteak saihesteko, eskolekin lan egingo dugu teknologia berrien erabilera arduratsua sustatzeko.

### **GAZTETXEA**

Sorginola bota zutenetik Durangoko gazteak Gaztetxe bila dabilta. EH Bilduk, eurekin elkarlanean eta gazteekin adostuta, baldintzak betetzen dituen espazioa aurkitu eta gazteen esku utziko du eurek kudea dezaten.

### **OSASUN MENTALA ZAINDU**

Azken aldiotan, areagotu egin dira osasun mentalekin zerikusia duten gaixotasunak. Legegintzaldi honetan, martxan jarri dugu, Bizkaiko Psikologia Elkargoarekin batera, gaixotasun mentalei aurre egiteko programa bat, bereziki, gazteei zuzendua. Bide horretatik jarraituko dugu, alegia, gure gazteen osasun mentala babesten eta zaintzen dituzten neurriak hartzen.

### **GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO ETXEBIZITZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK**

16 Udal etxebizitza, altzairuz hornituta, alokairuan eskainiko dira. Etxebizitzak San Fausto auzoan kokatuta daude. Gainera, EH Bilduk gazteentzako diru-laguntzak ematen jarraituko du. Gazteak pairatzen ari dira gehien etxebizitzaren prezioen garestitzea; izan ere, ia ezinezkoa egiten zaie emantzipatzea.

## ADINEKOAK

### **ADINEKOEN ETXEA HOBETU**

Adinekoen beharrak adineko pertsonekin eta udal-teknikariek elkarlanean aztertuko ditugu. Udaletik horiek hobetzeko bitartekoak martxan jarriko ditugu.

### **TAXILAGUN ZERBITZUA HANDITU**

Taxilagun zerbitzua eskaintzen jarraituko dugu. Arreta berezia jarriko dugu erabiltzaileen eskaerei eta lan egingo dugu Taxilagun zerbitzuak euren beharrak bete ditzan.

### **DURANGO LAGUNKOIA EKIMENA BULTZATU**

Durango Lagunkoia herri ekimena 8 boluntariok osatzen dute eta euren helburua herri irisgarriagoa eta lagunkaiagoa sortzea da pertsona nagusientzat. EH Bildutik, egitasmoa baloreen jarri ez ezik, babestu eta bultzatu ere egingo du baliabideak eskainiz eta uneoro euren aldarrikapenei bide emanez.

### **ZAHARTZE AKTIBORAKO PLANA OSATU**

Zahartze aktiborako plana osatzeko parte hartze prozesua jarriko dugu martxan. Plan horren bitartez, bultzatuko da zahartze aktiboa eta osasungarria, adinekoen elkartegintza eta boluntarioria, eta belaunaldi barruko eta belaunaldi arteko harreman-sareen komunikazioa eta indartzea.

## PERTSONA MIGRATU ETA ARRAZIALIZATUAK

### **HARRERA SAREA EHUNDU**

Durangora bizitzera iritsi berriak diren pertsonen harrera egin eta elkarbizitza espazioak sortzeko sarea ehunduko dugu. Ekimen ezberdinen bidez elkar-ezagutza sustatuko dugu herri kohesioa indartze aldera. Horretarako, harremanak bultzatzeko espazioak sortuko ditugu fisikoak (Herriguneak), zein sozialak (Bizilagunak, mundialito antirrazista, munduko arrozak...)

### **INMIGRAZIO SAILERA BALIABIDEAK BIDERATU**

Harrera fasea ez ezik, Durangoko pertsona migratuen elkarbizitza ere indartu nahi dugu. Horregatik, baliabide gehiago bideratuko ditugu inmigrazio sailera. Gure helburua da Durangora bizitzera datorren pertsona oro bere etxean senti daiten, eta, horretarako, elkarte, eskola eta auzo guztiekin egingo dugu lan prozesu komunitarioak martxan jarri.

### **ERROLDATZEA ERRAZTUKO DUGU**

Badakigu zein garrantzitsua den etorri berrientzat errolda agiria lortzea. Horregatik, prozesua errazteko neurriak hartuko ditugu legeak eskaintzen dituen aukera guztiak aprobetxatuz.

### **EMAKUME MIGRANTE ZAINZAILA EGOERA AZTERTU**

Etxeko langileen %90a baino gehiago emakumeak dira, horietatik erdia baino gehiago emakume migratuak eta %25ak kontraturik gabe daude, gehienak interna gisa. Diagnostiko baten bitartez, Durangoko langile horien egoera aztertuko dugu eta euren lan eta bizi baldintzak hobetzeko prozesuak jarriko ditugu martxan.

## **LANBIDE HEZIKETA GAUEZ**

Lanbide Heziketa gauez egiteko aukerak izateko baldintzak aztertuko ditugu eta Eusko Jaurlaritzarekin egun dugun Hitzarmenaren baitan egon daitezkeek aukerak jorratuko ditugu.

## **ANIZTASUN FUNTZIONALA**

### **ANIZTASUN FUNTZIONALERAKO PLANA DISEINATU ETA MARTXAN JARRI**

Esparruan lanean dauden elkarrekin diagnostiko bat egin ostean, Aniztasun funtzionalerako Plana diseinatuko dugu. 4 ardatzen inguruan garatuko dugu:

- Autonomia pertsonala
- Ikasi, lan egin eta bizitzeko aukeren garapena
- Parte-hartze sozial aktiboa
- Inguru egokitu eta irisgarriak

## **DURANGO BAKE-HERRIA**

Memoria historikoa lantzen jarraituko dugu egia eta justiziaren parametroetan oinarrituz. Urraketak identifikatuko ditugu eta kaltetuei laguntzak bideratuko diegu babes instituzionala eskainiz. Justizia eta elkarbizitza sutatzea ditugu helburu.



# ZAINTZEN DUEN DURANGO

## **ZAINTZAREN DIAGNOSTIKOA EGIN**

Zaintzaren Diagnostiko Partekatu bat abian jarriko dugu herritarron zaintza beharrak identifikatzeko. Gure lehentasuna gehien behar duten pertsonen bizitzak hobetzea da, adibidez, dependentzia egoeran dauden herritarrei bideratutako zerbitzuak indartuz, gazteen osasun mentala zaintzen jarraituz edo bakardade ez hautatua pairatzen duten nagusiak lagunduz.

Urgentziazko behar horietarako udal eskumeneko zerbitzuak indartu eta beharrak identifikatuko ditugu.

## **ZAINTZAILEAK ZAINDU**

Zaintza lanak feminizatuta, familiarizatuta eta prekarizatuta daude. Zerbitzu publikoak ez direnez jendartearen beharretara egokitzen, familiarekin edota kontratazio pribatuekin bermatzen dira. Horrenbestez, gure helburua da zaintzaileen lan baldintzak duintzea. Horretarako, prozesu bat zabalduko dugu, prekarietate egoeran dauden zaintzaileen ahotsa entzuteko eta elkarlanean baldintza justuetan Zaintzen duen Durango eraikitzeko.

## **BAKARDADE EZ HAUTATUARI AURRE EGITEKO PLANA LANDU ETA MARTXAN JARRI**

Diagnostiko partekatuaren bitartez, bakardade ez hautatua pairatzen duten pertsonak identifikatuko ditugu. Ondoren, pertsona horien bizitzak hobetzeko eta duintzeko plan bat diseinatu eta martxan jarriko dugu, beti ere, familiekin eta komunitatearekin elkarlanean.

## **BELAUNDIARTEKO ELKARBIZITZARAKO ETXEBIZITZAK**

San Agustin Ospital zaharra adinekoentzako eta gazteentzako etxebizitza dotazioanalak izango dira, behin eraberrituta eta egokituta. Bi belaunaldien elkarbizitza, alde batetik, eta, bestetik, bakoitzaren autonomia sustatuko dugu etxebizitza duinak eskainiz.

## **ZAINTZARA BIDERATUTAKO UDAL ZERBITZUAK SORTU**

Zaintzaren Diagnostiko Partekatuarekin identifikatzen ditugun beharrei aurre egiteko, zerbitzu publikoak sortzea aztertuko dugu. Gure helburua zaintza erdigunean jartzea da; beraz, Udaletik behar horrek asetzeko tresnak sortuko ditugu.

## **ZAINTZA KOMUNITATEA EHUNDU**

Elkar zaintzearen garrantziaz kontziente den komunitate bat ehuntzea ezinbestekoa da garaiotan. Zainduak izateko eskubidearen eta konpromiso berdinez zaintzeko behararen kultura zabaltzea behar dugu. Horregatik, bertako komertzioekin Taberna Atseginak bezalako proiektua osatu den bezala, elkar zaintzarako aukera gehiago jarriko ditugu martxan. Merkatariekin, elkarteekin eta auzoekin elkarlanean, elkar zaintzarako sare komunitarioa ehuntzea da helburua. Bizitzak erdigunean jartzeko gairia da.

# DURANGO BERDEAGOA

## ENERGIA PLANA

### **EGUZKI PLAKAK INSTALATU ERAIKIN PUBLIKOETAN**

Durangoko Energia Plana martxan dago eta horrekin aurrera egin nahi dugu. Energia berriztagarriak sustatuz, 758 eguzki plaka instalatu ditugu Landako eskolan, polikiroldegian eta ezkurdiko frontoian eta beste 450 jarriko ditugu Landako gunean. Energia sorkuntzarako balio dezaketen kokaleku berriak aztertuko ditugu.

### **ENERGIA AURREZTU ERAIKIN ETA ESPAZIO PUBLIKOETAN**

Eraikin publikoetan isolamendu eta argiztatze sistemak hobetuko ditugu energia aurrezte aldera. Gainera, kale argiteria efizientzia altuko sistemetara aldatuko dugu.

### **ETXEBIZITZEN BIRGAITZEAN INBERTITU**

Etxebizitza parkea gero eta eraginkorragoa izan daiten energetikoki, laguntzak eta hobari fiskalak eskainiko ditugu errehabilitazio obrak bultzatzeko.

### **OLIGOPOLIOEKIN DITUGUN KONTRATUAK ALDATU**

Energiaren arloan dauden kontratazio publikoetan irizpide sozial eta ekologikoak txertatuko ditugu. Horretarako klausulak txertatuko ditugu kontratazioaren admisio, balorazio eta exekuzio faseetan. Prozesuak irekiko ditugu enpresa eta kooperatiba sozial, berde eta demokratikoekin hornikuntzak bultzatzeko.

### **KOMUNITATE ENERGETIKOEN SORRERA SUSTATU**

Trantsizio energetikoan aurrera egiteko Udalaren eta herritarren indarrak batuz, Komunitate Energetikoak sortzea bultzatuko dugu: Autohornikuntzan eta burujabetzan aurrera egiteko, demokrazia energetikoa sustatzeko, pobrezia energetikoari aurre egiteko eta energiaren kostua murrizteko.

## KUTSADURARIK GABEA

### **GURE ERREKAK ZAINDU**

Gure ibaiak garbitzeko jardunaldiak bultzatzen jarraituko dugu, herriko elkarteen eta ikastetxeen inplikazioarekin. Era berean, Urarekin lan egingo dugu ibaiertzak hobetzeko eta garbi eta seguru mantentzeko. Bestalde, bideragarria den ibaiertzetan, ibilbide naturak egingo ditugu, adibidez, Mikeldi inguruan, Pinondon edo Tabiran. Ibilbide natural horiek Durangoko Sare Berdearen parte izango dira eta konfort termikoa bilatzea izango dute helburu besteak beste.

### **AIREAREN KALITATEA ZAINTEKO MAHAIA**

Airearen kalitatea koordinatzeko mahaiari eutsiko diogu, inplikaturako eragile guztiek parte har dezaten eta osasun publikoaren alde lan egin dadin.

Gainera, bai agintari eskudunek (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila), bai enpresek legea bete dezaten presionatuko dugu. Arnasten dugun airea osasungarria eta kaltegabea izatera lortu arte.

## NATURGUNEAK BABESTU

### **DURANGOKO BASO LURRAK EROSI ETA ESPEZIE AUTOKTONOAK LANDATU**

4 urte hauetan, Udal Gobernutik, Udal basoak zaindu egin dira horietan inbertitzeko politiken bitartez. Bide horretatik jarraitzeko konpromisoa berresten dugu eta gure asmoa baso lurra erosi eta bertako espezieak landatzea da, biodibertsitatearen alde eginez.

### **BERDEGUNEAK ZAINDU ETA ZUHAITZAK LANDATU**

Durangoko berdeguneak zabaldu eta zaindu egingo dugu. Supersagar berde pilotu bat sortuko dugu konfort termikoa bilatuko duena. Gainera, baldintza klimatiko berriei egokitutako espezie autoktonoak landatuko ditugu.

### **BASO ESKOLA ESPERIENTZIAK MARTXAN JARRI**

Naturguneak babestearen garrantziaz kontzientzia zabaltzeko, Baso Eskola esperientzien proiektua martxan jarriko dugu.

Durangoko haur eta gazteek, gure ingurumena ezagutzeko eta naturguneetan, zuzeneko esperimentazioetik, hezitzeko aukera emango du Naturan hezteko esperientziak.

### **ERREKA ETA ERREKA INGURUAK ZAINDU**

Mañaria eta Ibaizabal errekek zaintzeko, Hezkuntza komunitatean eta auzoko elkarteekin batera, bai sensibilizazio eta garbiketa ekintzak egiten jarraituko dugu.

Hala ere, erreketara hondakinak ez joateko prebentzio neurriak ipiniko ditugu.

## MUGIKORTASUN JASANGARRIA

### **DURANGON OINEZKO EREMU BERRIAK SORTU**

Gaur egun daudenak handituko ditugu eta berriak sortu (FJ. Zumarraga, Fco.Ibarra, tren bide zaharrran...).. Mugikortasun jasangarri eta osasuntsu batek pertsona guztientzat atsegina den herri bat ekarriko du, aire kalitate hobegoarekin.

### **UDAL IBILGAILUAK ELEKTRIFIKATZEN JARRAITU**

Orain arteko bidetik segika, udal ibilgailuen elektrifikazioa bultzatuko dugu. Gure helbura Udalak sortzen duen lorratz ekologikoa Berotegi Eftukoa Gasen emisioak murriztea da.

### **BIZIKLETAREN ERABILERA SUSTATU**

Durangon mugikortasun jasangarri bat bultzatu eta bizikletaren erabilera sustatzeko, bidegorri sareak emendatzen segiko dugu. Horrez gain, herriko gune desberdinetan bizikletentzako aparkalekuak jarriko ditugu, bizikletaren erabilera errazteko. Azkenik, mugikortasun modu honen aldeko apustua indartzeko, formakuntza eta kontzientziazio kanpainak egingo ditugu.

### **HONDAKINEN KUDEAKETA**

2020an organikoaren bilketa martxan ipini ondoren, frakzio honen bilketa indartu eta sustatzeko kontzientziazio eta formazio kanpainak jarriko ditugu martxan. Honekin batera, errefusa atala murrizteko urratsak emango ditugu.

# AUZOENTZAKO PROPOSAMENAK

## MADALENA

- Ez Trenbideko lurren dorreetara (ez 18 ez 11 altuera)
- Ambrosio Meabeko txakurgunea hobetzea
- Zumarragako F.J. jaunaren goiko aldea erdi-peatonalizatzea
- Fco Ibarako alboko bidea oinezkoentzat egitea eta lorategidun estalkia jartzea
- Mañaria ibaiaren erribera hobetzea
- Hiri hondartza Mikeldi-Olazaran inguruan
- San Inazioko jokoak estaltzea
- Kaleetako argiztapena hobetzea
- Autobus-geltokien arteko oinezkoentzako pasabidea handitzea

## SAN FAUSTO

- Kapitanea Auzogogune bihurtzeko obrak egitea
- 2023ko aurrekontu parte-hartzaileetan onartutako txintxaun berriak instalatzea
- Auzorako disuasio-aparkaleku berria egitea
- Alokairurako Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzea
- Zirarmendietako espaloia berritzea

## ALDE ZAHARRA / ERDIGUNEA

- Karkabak berreurbanizatzea
- Pinondo plaza eraberritzea
- Pinondo etxeko atzeko parketa berreskuratzea
- Antso-estegiz eta Komentu kaleko urbanizatzeari ekitea
- Merkatu eta Hornidura Plaza birmoldatzea
- Kultur Etxea eraikitzea postetxe zaharrear
- Kaleetako argiztapena hobetzea
- Astarloa eta Monagotorre berurbanizatzea
- Kurutziaga kalea berurbanizatzea

## TABIRA

- Autokarabanen eremu bat eraikitzea, turismo aktiborako elementu guztiekin
- 2023ko aurrekontu parte-hartzaileetan hautatutako ur-zurrusten proiektua gauzatzea

- Tabirako igerilekuetarako aldagela berriak eta sarrera berria eraikitzea
- Tabirako igerilekuetan berdegunea eta ur-jolasak handitzea
- Kaleetako argiztapena hobetzea
- Hezkuntza eta Kirol polo baten garapena bultzatzea Tabiran libre geratzen diren lursoroetan
- Eguzkitzako industrialdea garatzea, enpresa berriak eta kalitatezko enplegua erakartzeko

### **SAN ROKE-ASKATASUN-ARAMOTZ**

- Ez Trenbideko lurren dorreetara (ez 18 ez 11 altuera)
- Tren bideko trazadura zaharra berdegune bihurtzea
- Aramotz berrituko obrak aurrera eramatea
- Errotaritzuenako txakurgunea hobetzea
- San Rokeko parking-a eta berdeguneak handitzea eta atontzea

### **LANDAKO-MURUETATORRE-IBAIZABAL**

- Muruetatorreko baserria eta inguruko espazio herritarrentzat berreskuratzea
- 2023ko aurrekontu parte-hartzaileetan hautatutako Ibaizabaleko haurrentzako parke berria egitea
- Trenaren trazadura zaharra berreskuratu.
- Hainbat kiroldegi-kantxa eta pilotaleku estali gabeak eraikitzea Txibitena amaierako udal-lursailean.
- Skate park-a handitzea
- Landakoguneko plaza berurbanizatzea